



III AKTA

Gaia: Idazkari/Administrazio-laguntzaile lanpostua betetzeko langileen aukeraketa-prozesua Euskadiren Estatu Batuetako Ordezkaritzan lan egiteko. Ezagutza probaren behin-behineko emaitzak.

Prozesua:

Euskadiren Estatu Batuetako Ordezkaritzan Idazkari/Administrazio-laguntzaile bezala lan egiteko kontratazio prozesua da.

Prozesuak hiru fase ditu:

1. Hautagaien aurkezpena eta aukeraketa.
2. Ezagutza proba.
3. Elkarrizketa pertsonala eta merituen balorazioa.

Aukeraketa-prozesuaren 2 eta 3 faseak deialdiaren oinarrietan azaldutako azterketaren bi faseei dagozkie (Deialdiaren 6.2 atalean): oposizioarena, bi ariketaz osatuta dagoena (ezagutza proba eta elkarrizketa pertsonala) eta merituen balorazioa.

Deialdiaren oinarrien arabera, ezagutza proba fasean lanpostuari lotutako eginkizunekin zerikusi zuzena duen azterketa bat egingo da, zeina nahitaezkoa eta baztertzaila izango den. Gehienez ere 30 puntuko puntuazioa lortu ahal izango da, eta 15 puntu lortzen ez dituzten hautagaiak kanporatuta geratuko dira.

Erreklamazio eta zuzenketa epeen ostean, onartutako behin betiko 2 hautagaien artean, guztiak (2) aurkeztu ziren ezagutza proba egitera. Proba hau lanpostuaren eginkizunekin lotutako bi ariketekin osatuta dago.

Ezagutza proba modu telematikoan egin zen, Epaimahai kalifikatzaileak adostu eta onartutakoaren arabera, 2022ko azaroaren 4ean, ostirala.

Ezagutza probaren behin-behineko emaitzak hurrengoak dira:

Erregistro zenbakia	1. ariketa	2. ariketa	Guztira
CN-40593081	13,95	13,95	27,90
CN-25574911	11,55	13,50	25,05



Beraz, ezagutza proba gainditu eta prozesuaren hurrengo fasera pasatzen diren behin-behineko hautagaien zerrenda hau da (puntuazioaren arabera ordenatuta):

Erregistro zenbakia	1.ariketa	2.ariketa	Guztira
CN-40593081	13,95	13,95	27,90
CN-25574911	11,55	13,50	25,05

Behin-betiko zerrenda atera bitartean, 5 egun naturaleko erreklamazio epea hasten da azaroaren 12a, larunbata, arte.

New Yorkeko hirian, 2022ko azaroaren 7an.

Unai Telleria
Ordezkarria

Euskadiren Estatu Batuetako Ordezkaritza
Epaimahai Kalifikatzaileko Mahaiburua

Nerea Arrieta
Arduradun Instituzionala
Euskadiren Estatu Batuetako Ordezkaritza
Epaimahai Kalifikatzaileko Idazkarria